

EUSKO KROMLEK

ZER DAN IKASTEN

Oteiza'ren liburuari buruz

Ernagarria da Jorje Oteiza'ren liburua, bere izenburu onelakoa: «Quousque tandem...?». Lotan dagona esnatzera omen dator bere liburua. Ori dirausku Oteiza'k berak, eta gibeletik irrintzika datorkigu. Egonarria galdu du, gure loaldia luzeegi egiten delako. Ta orrela, Erroma'ko Zizeron'ek yalki zitun aokaldietatik bat Oteiza'k aukeratu ta jaurtitzen du. Aokaldia bere liburuaren izenburutzat artu izan du. Beraz, Oteiza'ren liburua Katilinketa deritzayot. Katilina, gero, gizakume bat izan zan. Erroma'ko politikari biurra ta erri ugazaba izatearren guda sortu izan zun. Zizeron, egonarria beñola galduta, bere aurka egundoko mintzaldi latzez jeiki zan. Katilina'ren aurka, beraz, Zizeron'ek bota zun itzaldi saillari Katilinketa deritzayot. Ta ola deritzayot, alegia, euskeraz nolabait deitzeke, ez erderaz. Gaztelera, ba, «Catinarias» izeneko itzaldiek dira. Oteiza'tar Jorje, berebat, Zizeron'en itzak berekiko arturik, garaxika ari zaigu, eusko arima ta eusko ezaguera loxusta ilgarritik iratzarteko asmoz.

Kromlek, adizu, antxiñako gizonak arri aundiz, beroyek zutik ipiñita, egiten zuten obo edo zirkulo utsa da. Arri aundiz egiñak dira ederren eta aundienek. Euskal Erria'n ere ba-dira, bañan arri ñañoz egiñak dirudite. Oteiza'k, ba, neolitikoko garaioko eusko kromlek'az itz egiten du, bañan berorren obo utsak

dakarren gogoyaz edo ideiaz jarduten du, orrela berberaren gogakizunak eta asmabidea azaltzeko. Zutarrizko Kromlek ori, esan dudanez, eta beronek sortzen dun obo utsa, berriz diñot, Oteiza'k bere asmabidea argitzeke ta bere esangura azaltzeko adibidetzat artu izan ditu.

Sartu gaitezen, ba, Oteiza'ren Kromlek ortan, bere obo utsa zer dan ikasi dezagun. Ni, beintzat, eta aurretik esaten det, ez natorkizu Oteiza'ren larritasun orren aurka, bere garaxi ta irrintziek lotatik esnatzen gaitulako. Beraren aurka ez, bañan Oriotarren alde areago naiz. Zer esan eta zer jardun eta zer erabili gure arteko eztabaidaeetan ba dakar, noski. Liburuko asmabidea nik geyentsuki ontzat artuko nuke. Batzutan, berriz, bere esanaldia erdizka bakarrik artu bearrean, berori baetu ezker ta iredi ezker, osorik ere ontzat artu daiteke. Bañan baetu gabe ta iredi gabe ez, nereki. Azkenik, utsunen bat ere beteko nuke. Bañan adizu ondo, utsune esan dudala, ta ez oker esana edo oker eretxia. Urrengo aldiaren gure eslijio pentsaeraz Oteiza'k zer diñon, adieraziko det. «Gure erlijio pentsaeraz» zera esan nai du, euskaldunaren erlijioa azkenik zertan dagon, eusko kromlek ortan erlijioaren asiera zer dan, nola dan, zein leen elementu gaiki dan.

Bitarga

AOSTA

Alpes-en biotzean, mendiz esiturik dago Aosta zoragarria; «L'ardua Grivola bella» Garducci-k kantatu zuan tokia. Eta zearo desberdiña da Mediterraneo-tik, Italia barruan izanaren: oituraz, izkuntza eta gizonen izakeraz bere nortasun berezian jabe dalarik.

Turismo utsak baño mendizaletasunaren indarrak geiago eraman ginuzen Côte d'Azur-dik Alpes-era. Gran Paradiso eta beste mendiren batera igotzeko gogoa nuan, baña ez nuan izan aurreko urteetako suerterik. Eten gabeko egualdi txarrak egin zituan bertan ibilli giñan egunetan. Alde batetik ongarri izan zitzaigun. Mendiko pakeagandik aparte ere, bada errietan zer ikusi eta zer ikasi.

Valle de Aosta deritzen zaio, baña aran orren magalean beste aran asko zabaltzen dira errama gisan. Sorkalde ta iparraldetik Suiza-kin eta Frantzia-kin ditu mugak. Guztiz, 3.230 kilometro kuadratu ditu eta 100.000 biztanle. Eta, autonomiarekin, bere buruz gobernatzan da.

Aintziña, 1238-tik ezagutu da kondairan «Duche d'Aoste»-ren lur paketsua. Erromatarren denborako Augusta Pretoria izeneko erria da. Anitz lorratz ditu garai artakoak: teatroa, esia, Augusto ta Pretorianoen ateak eta abar. Eta Dukado aren agiritzat 98 gaztelu gordetzen dira.

Etnologi ta izkuntza berezitasunegaitik, baten erri kezka libertadearen alde. Orsières katalonja (1803-1870) zan sorkundearen orriko irakaslerik onena. Aosta-ko kultura, politika eta gizartearen esnalea; ainbat lan idatzi bai zituan bere alde. Eskubitarrak jarraitu zuten bere bidea ezkertarrak etsai zidalarik. Fascismoa alegindu zan

bertako izkuntza ta zenbait oitura galdu nairik, ta egintza nasagarri orren aurka alkartu ziran ezkertarrak ere beren erriaren jatorrizko izakeraren alde. Gerra ondoren, 1945-ean lortu zuan Aosta-k «Decreto Luogotenenziale» eta gero, 1948-garren urtean, artu zuan zearozko estatutua; autonomi konstituzio berezia.

Gobernu eder bat du orduan

alkarren artean ondo ulertzen dirala. Badute beren literatura berezi bat ere, ta Giovanni Battista Cerlogne da euren poeta nagusia (1826-1910). Poeta berak antolatutako gramatika eta iztegia dituzte onarritzat eskola guzietan. Ofizialki ematen dira itelera ta valdostera malla berean.

Agiri danez, beren izkuntza oso maite dute eta ezta errez



egiña ta bertara jo genuan berri billa. Erreztasun guziak izan genitun eta atsegiñez azaldu zituguten kondaira, lege, oitura ta izkuntzari buruzko gora-bera guziak.

Urte gutxian berebiziko arrerapenak izan dituzte era guzietan, autonomi orri esker. Bere aberastasunak ditu arbolak, abereak, mineria zerbait, lantegiak, elektrika, nekazaritza, turismoa ta abar; ta bakoitzak, bere saillean antolatutako komisiota ofizinalak ditu gobernoan. Ta, orrek ematen ditu Europa barruan bere nortasuna.

Aostarrak oso langilleak dira, ori da erri onek duan beste doai bat. Ez dira egoaldeko italiarrak bezela, ezta gutxiagorik ere.

Bada «Comitato delle Tradizioni Valdostane» dalako biltzarre bat ere, oitura on guzien zaintzalle, batez ere izkuntzaren. «Patois» dalako izkuntza orre Savoya-ko dialektoakin eta frantzezarekin ditu bere sendetasunak. Gressoney-n ez, beste guztian egiten da valdostera, dialektoz zabaldurik baña

galduko. Gañera, Italia-k errekonozidu du, Frantziakin eta Suiza-kin mugatarik egotera, valdostarrentzat laguntza asun aundia dala, artu-emanetarako, aien kideko izkuntza dalako. Telebista, geienak frantzeraz artzen dute.

Sorkaldean berriz, Monte Rosa-ren egalean, Gressoney araneko erriak, beste erri guziegandik oitura desberdiñak dituzte eta alemanezko dialektoan mintzatzen dira, Valais-ko suizoak bezela. Ta oiek ere estatutoaren laguntzarekin baliatzen dira bere oitura ta izkuntza gordetzeko.

Immigrazioaren problemak ere badituzte. Ez askorik. Ta ortarako, duako eskolak jarriak dira ikasi nai dutenak, borondatez, bertara joateko. Ta, esate baterako, denak joaten omen dira valdostera ikastera.

Aosta paketsuan dena iduritu zitzaigun atsegiña. Bertan igarotako egunen oroitzapena ez da gure burutik iñoiz aldenduko. Bada an gauza jakingarririk.

Juan San Martin

Monjak

Euskeltzale?...

Guzion bearrean gaude euskerari eutsi nai ba diogu. Geiagorandik emakumezkoen bearrean.

Eta jakina, orretarako, monja-seroren laguntza nai ta naiezkoa zaigula ez dago esan bearrik.

Orain arte laguntzaille bizkorenak praile ta elizgizonen artean arkitu izan ditugu naiz guziguziak alde ez jokatu arren. Bañan, damurik, monja-serora geienak etsai ditugula ezin ukatu. Zoritxarrez, monja-ikastetxe ta kolejiotan ez dute euskeraz ezer erakutsi nai izaten. Eta eragozpen audienak jartzen dituzte eskatzen ba zaie. Gurasoak ere errudun gaituzula egia da. Ez bait dugu gogor egiten gure aurrai euskel eskola eman dezai.

Alare, guzia illun izan ez dedin, aitortu dezagun, itzaropenez, guraso asko asiak ditugula aurpegi ematen. Eta poliki-poliki, an emen, euskel ikastolak sortzen ari dirala.

Oso bakan eta gutxi, orain-

dik, bañan asiera eman zaion ezker, gerora ugaritzen eta indartzen joango diran ustea izan genezake. Euskel eskola aldeko erasoaldi ontan gurasoek ibilli bear dugu aurretik. Eta onela gureganatuko ditugu maisu-maistra, praile ta... monja-serorak ere. Praile euskeltzaleak ez gaituzte arritzen. Bat beste-rik ez aitatzeko, or dugu Aita Murieta kaputxinoa «Umeen-deia» ta «Batxiler Euskaldunak» orriak zabalduaz lan txalogarria egiten ari zaiguna. Ez da egun asko, euskeltzalebatzar batean, pozaren pozez, gizonekoan artean monjatxo bat ikusi genduala. Ez zuan ango zalaparta ta keak ikaritzen. Zer zan ua? Ez nuen sinistatu nai. Mirari bat ote zan? Bai, baiña, benetakoa ordea. Arrasate'ko Sor Mari Mirari... batzarera zetorkiguna aurrai euskeraz erakusteko aolku ta laguntza billa...

Ez dakit bear aña laguntza eskeñi genion eta merezi zuan arretaz artu genuen. Orregatik lerro auen bitartez batzarkideen

izenean gure esker ona agertu nai diot.

Betoz bai, guregana, monja euskeltzaleak. Eta ar itzagan Jainkoak bidaliak bezela euskeraren etorkizunerako.

Ibalan

ENTZUN
EUSKAL
IRRATIAK:

Bilbao. Donostia.
Arrate. Beruete.
Lolola. Segura
ta Tolosa'ko
Erri-Irratiak

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN
FRANQUEO CONCERTADO N.º 37 - 21

JUAN ZULAICA
Geologu de Aranzazu
NAIE